

MARURI-JATABE / Liburuen trukea antolatu da ostiralean udal liburutegian

Liburuaren Eguna ospatzeko xedez, Maruri-Jatabeko Udalak liburuen trukea antolatu du ostiral honetan, Udal liburutegian. Arratsaldeko 16:30etik iluntzeko 19:00ak arte, gura dutenak liburutegira hurbildu daitezke jadanik irakurri duten liburu batekin, edozein genero edo motakoa izan daitekeela.

Etiket ekarritako liburu hori liburutegian eskuragai jarriko den bilduman daudenetarik baten truke aldatu dezake. Inguruko beste herri ba-tzuetan efemeridea ospatzeko ohiko ekitaldia bada ere, Maruri-Jataben lehendabizikoz antolatzen da truke-jardunaldia. Horrela, udal arduradunek parte hartzeko deia egin diete herritar guztiei.